



---

## 2. EROSKERIAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO PROTOKOLOA

---

| Bertsioa   | Aldaketa                                                                                                                                  | Arduraduna                                                                 | Data       | Onarpena                     |
|------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|------------|------------------------------|
| Laugarrena | Partidetarako eta horiekin zerikusia duten ekitaldietarako gonbidapenen prozedura, zalantza, kontsulta eta iradokizunetarako postak barne | Finantza,<br>Administrazio eta<br>Giza Baliabideetako<br>Zuzendari Nagusia | 2022/10/10 | Administrazio-<br>kontseilua |

## **1. HELBURUA ETA XEDEA**

---

Eibar Kirol Elkartea, S.A.D. Sozietateak, Protokolo honen bidez, edozein ustelkeria modu debekatzen du, ustelkeria modura ulertu behar delarik, era berean, eroskeria edo sobornatzea, edozein modu edo eratan. Horregatik, honako Protokolo hau ezarri da, jardunbide onak ezartzea duena helburu, Eibar, S.A.D. Kirol Elkarteari (aurrerantzean, "Kluba" edo "Eibar") zuzenean edo zeharka eragin edo kalte egin diezaiokeen ustelkeria-, eroskeria- edo sobornatze-modu oro prebenitzeko, hautemateko, haren kontra borrokatzeko eta, beharrezkoa bada, zigortzeko. Hori esanik, aplikagarri dira ustelkeriaren eta sobornoaren aurka aplikagarri diren legezko xedapen guztiak, garrantzia berezia izanik egun indarrean den Espainiako zigorkodea.

## **2. APLIKAZIO-EREMUA**

---

Protokolo honetan jasotzen eta garatzen diren irizpide zein jarraibideak aplikagarri dira Klubarekin lotura duen edo lotura izango duen pertsona fisiko edo juridiko ororentzat eta, bereziki, Administrazio Kontseiluko kideentzat, zuzendaritzako kideentzat, Klubeko talde ezberdinetako jokalarientzat, teknikarien taldeetako kideentzat, medikuentzat eta fisioterapeutentzat, bestelako langileentzat, bitartekariarentzat, agenteentzat, ordezkariarentzat, hornitzaileentzat eta babesleentzat. Hirugarrenei aplikatzeko, esate baterako, bitartekari, agente, ordezkari, hornitzaile eta babesleei, hirugarren horiekin sinatzen diren kontratuetan eroskeriaren aurkako honako klausula hau gaineratu beharko da: *Hirugarrenak (bitartekariak, agenteak, ordezkariak, hornitzaileak, bazkide komertzialak, babesleak, azpikontratatistak) bermatzen du eta adierazten du honen bidez, Kontratu hau indarrean sartutako egunez bere kontseilari, zuzendaritzako kide, langile edo kolaboratzaile bakar batek ez duela bidegabeko abantailarik, finantza erakoa edo beste modu batekoa, eskaini, zin egin, helarazi, baimendu, eskatu edo onartu (eta ez dute berezkitzat jo halakorik egingo dutenik edo egin dezaketenik etorkizunean). Hirugarrenak adierazi du zentzuzko neurriak hartu dituela modu erabakigarrian bere kontrolpean edo eraginpean dauden azpikontratasta, agente edo beste edozein hirugarrenen halakorik egitea ekiditeko.* Horrenbestez, Protokolo hau Eibar S.A.D. Kirol Elkartearen xedeetarako egokitzen jotzen da.

## **3. INTERES-GATAZKAK**

---

Protokolo honi dagokionez, interes-gatazka modura ulertu behar da erabaki edo ekintza bat Klubaren sozietate-jardunen barruan, bere onura edo probetxurako ez egitea, baizik eta egoera edo hirugarren baten jabe den pertsona edo erakundearen berezko mesedetan egitea, eragiten duen edozein egoera pertsonal.

Interes-gatazkako egoera bat sortu daiteke Klubarekin lotura duten pertsonen beren betebeharrak modu independentean edo osorik betetzea kaltetzen duten interes pribatu edo pertsonalak badituzte edo itxura hori ematen badute. Interes pribatu edo pertsonal modura ulertzen da norberaren edo "Lotutako Pertsonen" onura dakarren edozein abantaila. Horri dagokionez, Lotutako Pertsonatzat jotzen dira Klubarekin

lotura duen pertsonaren ezkontidea (edo berarekin harreman afektibo antzekoa duen pertsona); arbasoak, ondorengoak eta anai-arrebak; eta horien ezkontideak; eta baita ezkontidearen arbasoak, ondorengoak eta anai-arrebak; aurretik aipatutakoez aparteko pertsonak, baldin eta kontratuzko harremana edo interes ekonomikoa badute, zuzena edo zeharkakoa; eta baita, hein handian, aurrekoek partaidetu edo kontrolatutako sozietateak ere. Interes-gatazka hainbat modutan gerta daiteke:

#### **a) Kanpoan lan egitea**

Zenbait kasutan Klubaz aparteko jarduerak garatzea onargarri izan badaiteke ere, Klubetik aparte burutzen den edozein lanketa edo jarduerak ez du, sekula, Klubarekin Lotura duen Pertsonak harekiko duen erantzukizuna eragotzi behar. Horren harira, ezingo dira laneko tresnak erabili, ezta Klubarena den beste edozein bitarteko material edo giza baliabide ere, Klubaz aparteko jarduerak garatzeko (ordenagailuak edota telefono mugikorrak barne). Klubarekin lotutako pertsona bat Klubarekin loturarik ez duen hirugarren batentzat (zerbitzuen hornitzailea, agentea, etab.) edozein jarduera garatzeko asmotan badabil, aldez aurretik, bere nagusiaren edo Klubeko Giza Baliabideetako arduradunaren baimena izan beharko du.

#### **b) Familia-harremanak eta harreman pertsonalak**

Klubari lotutako pertsonak ezingo dute Erlazionatutako Pertsonarik kontratatu edo gainbegiratu (dagoeneko Klubean edo Kluberako lanean badaude), aldez aurretik, Klubeko zuzendaritzaren eta Gainbegiratze eta Kontrol Organoaren idatzizko baimenik izan gabe.

#### **c) Inbertsio Ekonomikoak**

Interes-gatazkako egoera bat dagoela ulertuko da Klubarekin lotutako pertsonak Klubarekin zuzenean edo zeharka lehiatzen den hirugarren batekin interes ekonomiko garrantzitsuren bat baldin badu. Gatazka-egoera horren berri eman beharko zaio berehala Klubeko zuzendaritzari eta Gainbegiratze eta Kontrol Organoari, jarraian deskribatzen den prozedura jarraituz.

Zehazki, administrarien kasuan, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legeko 228. artikuluko e) idatz-zatian aipatzen diren interes-gatazkako egoerak ekiditeko betebeharrak, honakoei muzin egitea dakarkie:

- a) Klubarekin transakzioak egitea, baldin eta ez badira eragiketa arruntak, baldintza estandarretan eginak eta garrantzi apalekoak. Halakotzat ulertuta erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen gaineko irudi leiala adierazteko beharrezkoa ez den informazioarekin zerikusia dutenak.
- b) Klubaren izena erabiltzea edo bere administrari izaera adieraztea eragiketa pribatuak egiteko modu ezegokian eragiteko.
- c) Sozietateko aktiboak erabiltzea, konpainiaren informazio konfidentziala barne, helburu pribatuak erdiesteko.
- d) Klubaren negozioirako aukerak baliatzea.

- e) Klubaz eta bere taldeaz aparteko hirugarrenen aldetik abantailak edo ordainsariak eskuratzea, adeitasun hutseko arretak salbuetsita.
- f) Klubarekin lehia egiazkoa dakartzaten edo ekar dezaketen jarduerak garatzea norberaren kontura edo besteren kontura, edo edozein erataria, Klubaren interesekin gatazka etengabea egotea eragiten dion jarduerak garatzea.

Aurreko puntuak aplikagarri izango dira, era berean, debekatutako egintza edo jardueren onuraduna administrariarekin zerikusia duen pertsona bat denean.

### **3.1. Balizko interes-gatazkako egoeren jakinarazpena**

Interes-gatazka egoera batean egon daitekeela edo dagoela uste duen pertsona orok egoera horren berri eman beharko dio idatziz berehala Klubeko Gainbegiratze eta Kontrol Organoari.

Egiten den jakinarazpenean, eragindako pertsonak, bere izena eta harremanetarako datuak adierazteaz gain, interes-gatazkako egoerak pertsonalki berari edo Erlazionatutako edozein pertsonari eragiten dion adierazi beharko du. Modu berean, gatazka ekarri duen egoera xehetasunez deskribatu beharko du, erabaki edo egintzaren xedea eta ezaugarri edo baldintza nagusiak zehaztuz. Jakinarazteko betebeharrak hori derrigorrezkoa da eragindako pertsonarentzat balizko interes-gatazkako egoeraren berri izaten den unean bertan.

Edozein kasutan, administrariak jakinarazi beharko diete gainerako administrariei eta, hala badagokio, administrazio-kontseiluari, edo, administrari bakarra baldin bada, batzorde orokorrari, Klubaren interesekin eurek edo eurekin zerikusia duten pertsonak izan dezaketen edozein gatazkako egoera, zuzena edo zeharkakoa.

Administrariaren interes-gatazkako egoerak sozietatearen memorian jasoko dira.

Aurrekoaren ondorioz, balizko interes-gatazkak eragindako pertsonak muzin egin beharko dio interes-gatazkako egoera bat eztabaidagai duen gaitan bertaratu, parte hartu edo gai horiekin zerikusia duen erabaki batean esku-hartzeari, Gainbegiratze eta Kontrol Organoaren aldetik aldeko erantzuna jaso ez bada. Gainbegiratze eta Kontrol Organoak eragindako pertsonaren interes-gatazka berretsiko balu, bere jarduketak egiteari utzi beharko lioke edo egitea ukatu beharko luke, edo independentzian eragin edo kaltetu dezaketen erabakiak hartzeari muzin egin beharko lioke.

Eragindako pertsonari Gainbegiratze eta Kontrol Organoak interes-gatazkarik ez dagoela adieraziko balio, hark kontsultara eramandako jarduera edo jarduketa inolako oztopo edo mugarik gabe egin ahalko du.

## **4. OPARI EDO SARIAK ONARTU ETA ESKAINTZEA**

---

### **4.1 Opari edo sariak onartu edo eskatzea**

Klubak ulertzen du ohikoa dela bere hornitzaile batzuek edo Klubarekin merkataritza-harremanak dituzten beste pertsona batzuek opari edo sari txikiak egitea, edo hobariak egitea Klubarekin Lotutako Pertsonen, horiekin harremanak dituztenean. Haatik, garrantzitsua da nabarmentzea, opari horiek ez dutela eraginik izan behar Klubarekin Lotutako Pertsonen erabakietan, eta ez du horren itxurarik eman behar ere. Horregatik, garrantzitsua da honako irizpide hauek zorrotzasunez kontuan izan eta betetzea, opari bat onartu ala ez erabakitzeke garaian:

- a) oparia edo hobaria jaso izanagatik (lehentasunezko tratua, baldintza hobeak, etab.) ezin da sortu zerbaiten zorretan geratzearen betebeharrak inplizitua edo horren itxura.
- b) opari edo hobari hori publiko egitea ez litzateke deserosoa izan behar, ez Klubarentzat ez oparia egiten duenarentzat.
- c) oparia jaso duenaren erabakia ezin da opariak eragotzita edo baldintzatuta egon, Klubak opariak egin dituen pertsonaren lehiakideei kontratuak egitea erabakitzeke garaian.

Edonola ere, opari, onura edo abantailak 100 euro edo gehiagoko balioa baldin badu, Klubaren Zuzendaritza Nagusiari eta Gainbegiratze eta Kontrol Organoari jakinarazi beharko zaie idatziz, berau onartzeko baimena eskatzeko.

Aurrekoa gorabehera, ezingo da, inola ere, honelakoak jasotzea onartu:

- a) eskudirua edo baliokideak (opari-ziurtagiriak, baleak edo opari-txekeak);
- b) Klubaren edo berarekin lotutako beste erakunde baten legeriak edo barne-araudiak debekatutako opariak, edo opariaren berri izanez gero, Klubaren erreputazioa kalteku dezaketenak; edo
- c) eroskeria, ordainketa edo bidegabeko komisio modura ematen den edozein hobari edo opari (adibidez, kontratuak lortu edo kontratuei eusteko emandakoak).

Arau berdinak aplikatzen dira, Klubarekin lotutako pertsonari onura zuzenik egin gabe, Erlazionatutako Pertsona bati mesede egiten dion opari edo sariarekin.

Opariak edo sariak onartu edo jasotzearen inguruan edozein zalantza izanez gero, Klubeko Gainbegiratze eta Kontrol Organora jo beharko da.

#### **4.2. Opariak edo sariak zin egin, eskaini edo ematea**

Klubarekin Lotutako Pertsona guztiek **berariaz debekatuta** dute, Klubarekin lotutako pertsona izaeran, 100 eurotik gorako balioa duen edozein opari edo sari mota zin egin, eskaini edo ematea, aldez aurretik Klubeko Zuzendaritza Nagusiaren eta Gainbegiratze eta Kontrol Organoaren baimenik izan gabe.

Ez da onartzen, inondik inora, opariak edo sariak eskudirutan edo modu baliokidean zin egin, eskaini edo ematea.

Funtzionario publikoei dagokienez, Klubaren jardunarekin lotutako opariak ematea onartzen da, modu mugatu eta zentzuzkoan, esate baterako, partidetarako sarrerak. Era berean, opari korporatiboak edo sinbolikoak ematea onartuko da, esate baterako, boligrafoak, karpetak edo *USB erako pen-driveak*, betiere, 100 eurotik gorakoak ez badira.

## **5. EKITALDI, BAZKARI-AFARI EDO BIDAIETARAKO GONBIDAPENAK ONARTU ETA ESKAINTZEA**

---

### **5.1. Ekitaldi, bazkari-afari edo bidaietarako gonbidapenak onartu, jaso edo eskatzea**

Klubak badaki eta onartzen du negozioetarako zenbait gonbidapen, esate baterako, bazkari-afariak, bidaiak edo ekitaldi zein futbol-partidetarako sarrerak, maiz gerta daitezkeela hirugarrenetikiko merkataritza-harremanetan, instituzioekiko harremanetan edo laneko harremanetan. Horretarako, Klubak gonbidapen horiek baimenduko ditu, baldin eta Klubaren merkataritza- edo ordezkartitza-helburu legitimoak badituzte eta indarreko legeria, zein Arauak Betetzeko Programa hau errespetatzen badituzte, betiere, irizpide hauetako bakoitza betetzen bada:

- merkataritza-helburu legitimo batekin lotura zentzuzkoa izatea;
- eroskeria, ordainketa, ordainsari edo bidegabeko komisio gisa ez onartu edo jasotzea; eta
- pertsonako 100 eurotik gorako zenbatekoa ez gainditzea. Zenbateko hori gaindituko balitz, Gainbegiratze eta Kontrol Organoaren baimen idatzia eskuratu beharko da aldez aurretik.

Edozein kasutan, berariaz debekaturik dago edozein gonbidapen edo bidaia onartu, eskatu edo jasotzea, honako hauek zin egin, eskaini edo luzatua baldin bada:

- a) edozein agintari edo funtzionario publikok emana, edo Eibar S.A.D. Kirol Elkartearekin lehiatzen den edozein kirol erakundeko edozein kidek, horiek Klubaren ordezkartitza kontzeptuan edo izaeran izan ezean.
- b) klubarekin lotutako edozein hirugarren edo pertsonak emana, zerbitzuen hornidurarako edo salgaien salmentarako edozein kontratu mota sinatu, lortu, mantendu edo berritzeko helburuarekin.
- c) kluba lehiatzen den proba, norgehiagoka edo lehiaketetako edozein arerio edo aurkarik emana, zin egin, eskaini edo ematen duenaren aldetik onura edo abantaila bat lortzeko baldin bada.

## **5.2. Ekitaldi, bazkari-afari edo bidaietarako gonbidapenak zin egin, eskaini edo ematea**

Aurreko atalean bezalaxe, **berariaz debekatzen** da Klubaren legezko jarduerarekin lotura zuzenik ez duten hirugarren aldeei gonbidapenak edo bidaiak zin egin, eskaini edo ematea; edozein kasutan, aldez aurretik baimena jaso beharko da Klubaren legezko jardunarekin zerikusia duten gonbidapenetarako, baldin eta 100 eurotik gorako kostua baldin badu. Halere, hurrengo lerroaldeetan ezartzen den prozedura jarraitu beharko da.

Funtzionario publikoei dagokienez, Klubaren jardunarekin lotutako ekitaldietarako gonbidapenak ematea onartzen da, modu mugatu eta zentzuzkoan, esate baterako, partidetarako sarrerak, hurrengo lerroaldean ezartzen den prozeduran xedatutakoa betez.

Futbol-partidetarako edota horiekin lotutako ekitaldietarako gonbidapenak baimenduta daude, eta honako prozedura jarraitu beharko da (100 eurotik gorako zenbatekoa gainditzen dutenen kasuan edo gaindituko dela aurreikusten denean, Gainbegiratze eta Kontrol Organoari egin beharko zaio kontsulta, hark baloratu eta, hala badagokio, baimena edo ezespena eman dezan). Hirugarrenentzako futbol-partida eta horiekin lotutako ekitaldietarako gonbidapena emateko prozedurari jarraikiz (betiere, 100 euroko zenbatekoa gainditzen ez bada, edo gaindituko dela aurreikusten ez bada, kasu horretan hurrengo lerroaldeetan xedatzen dena jarraitu beharko baita), protokolo honetako 2. eranskin modura gaineratzen den inprimakia bete beharko da eta, inprimaki hori txarteldegi eta protokoloko sailari helarazi beharko zaio. Horiek guztiak excel dokumentuan erregistratu beharko dira, honako hauek adieraziz:

- A. Gonbidapena zer partidetarako egiten den, Klub arerioa, jardunaldi-zenbakia edo kanporaketa, eta jokatu den eguna adierazita;
- B. Gonbidapena egiten duen Pertsona Lotua, eta berau jasotzen duen hirugarrena;
- C. Inbitazioaren zenbateko zenbatetsia.

Gonbidapenak 100 euroko balio zenbatetsia gainditzen badu, edo gainditu badezake, protokolo honetako x eranskin modura gaineratzen den inprimakia, era berean, Gainbegiratze eta Kontrol Organoari helarazi beharko zaio, gonbidapena eman aurretik. Horretarako, [osc@sdeibar.com](mailto:osc@sdeibar.com) helbide elektronikora idatzi beharko da, GKO organoak balioespena egin dezan eta, hala badagokio, bere onarpen edo ezespen justifikatua eman dezan. GKO organoa arduratuko da baimendu edo ezetsi dituen gonbidapenak excel dokumentu batean erregistratzeaz, honako hauek adierazita:

- A. Gonbidapena zer partidetarako egiten den, Klub arerioa, jardunaldi-zenbakia edo kanporaketa, eta jokatu den eguna adierazita;

- B. Gonbidapena egiten duen Pertsona Lotua, eta berau jasotzen duen hirugarrena;
- C. Inbitazioaren zenbateko zenbatetsia.
- D. Gonbidapenaren onarpena edo ezespena, hartutako erabakia justifikatzeko arrazoiak adierazita.

## **6. JAKINARAZTEKO PROZEDURA**

---

Lotutako Pertsona batek zalantzak izango balitu Politika honekin edo beste edozein kontrol-neurriarekin, zalantzak, kontsultak edota iradokizunak jasotzeko helbide honetara jo beharko du: [osc@sdeibar.com](mailto:osc@sdeibar.com).

Lotako Pertsonak Sistema edozein eratan ez dela betetzen ari, ez dela bete edo ez-betetzea gerta daitekeela uste badu ziurtasunez, edo, fede onez, frogatutako sumoak baditu, [Whistleblower Software](#) plataforma teknologikora jo beharko du, salaketak hainbat bide erabiliz aurkeztea ahalbidetzen duena.

Era berean, Eibar, S.A.D. Kirol Elkartea enpresak bermatzen du ez dela salaketen edo komunikazioen gaineko errepresaliarik egingo, asmo onez egiten direnean.

## **8. HIRUGARRENEKIN LOTUTAKO EGINBIDE EGOKIA (DUE DILIGENCE)**

---

Eibar, S.A.D. Kirol Elkartek, hirugarrenekin (babesleak, hornitzaileak, futbolarien ordezkariak, oro har, "bazkide komertzialak") kontratuak egin aurretik, Hirugarrenen *Due Diligence* (Eginbide Egokia) txostenak egin beharko ditu, haiek emandako informazioa egiaztatzeko eta, era berean, hirugarrenekin lotuta egon daitezkeen eta Kluba kalte lezaketan arriskuak hautemateko. Hirugarrenen *Due Diligence* horiek egiterakoan, arreta berezia ipiniko da nazioartekoak direnetan eta publikoki ezagutzen ez direnetan.

gger

## **9. ZEHAPEN ARAUBIDEA**

---

Protokolo honetan ezarritakoaren aurka doan edo jasotakoa betetzen ez duen edozein jokabide egiteak diziplina-ondorioak izan ditzake, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan zein Klubaren Diziplina Kidean eta Barne Araubideko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

**10.1. ERANSKINA. OPARIAK, SARIAK ETA BAZKARI-AFARI, EKITALDI EDO BIDAİETARAKO GONBIDAPENA ONARTU/EMATEKO BAIMEN-ESKAERA INPRIMAKIA:**

|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--|-----------------|----------------|
| <b>Eskatzailearen izena:</b>                                                                                                                                                                                                                                          | <b>Saila:</b>                                                                 |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
| <b>Data:</b>                                                                                                                                                                                                                                                          | <b>Harremanetako datuak:</b>                                                  |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       | <b>Helbidea:</b><br><b>Telefono-zenbakia:</b><br><b>Helbide elektronikoa:</b> |  |                 |                |
| <b>OPARIAK EDO BAZKARI-AFARI, BIDAIA EDO ENTRETENIMENDURAKO GONBIDAPENEN ONARPENA/ENTREGA</b>                                                                                                                                                                         |                                                                               |  |                 |                |
| <b>Oparia/gonbidapena:</b>                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                               |  |                 |                |
| <table border="1"> <tr> <td><b>Onarpena</b></td> <td><b>Entrega</b></td> </tr> </table>                                                                                                                                                                               |                                                                               |  | <b>Onarpena</b> | <b>Entrega</b> |
| <b>Onarpena</b>                                                                                                                                                                                                                                                       | <b>Entrega</b>                                                                |  |                 |                |
| <b>Onartzen edo entregatzen duen pertsona:</b>                                                                                                                                                                                                                        | <b>Funtzionario publikoa da?</b>                                              |  |                 |                |
| <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Izena:</b></li> <li><b>Postua:</b></li> <li><b>Enpresa:</b></li> </ul>                                                                                                                                                      | <table border="1"> <tr> <td><b>BAI</b></td> <td><b>EZ</b></td> </tr> </table> |  | <b>BAI</b>      | <b>EZ</b>      |
| <b>BAI</b>                                                                                                                                                                                                                                                            | <b>EZ</b>                                                                     |  |                 |                |
| <b>Entrega/onarpenerako justifikazioa:</b>                                                                                                                                                                                                                            |                                                                               |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
| <b>OPARI EDO GONBIDAPENAREN DESKRIBAPENA</b>                                                                                                                                                                                                                          |                                                                               |  |                 |                |
| <b>Deskribapena eta Balioa:</b>                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
| <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Opari korporatiboa da?</b> <table border="1"><tr><td><b>BAI</b></td><td><b>EZ</b></td></tr></table></li> <li><b>Balioa:</b></li> <li><b>Onartu/entregatzen duen pertsonaren deskribapena eta identifikazioa:</b></li> </ul> |                                                                               |  | <b>BAI</b>      | <b>EZ</b>      |
| <b>BAI</b>                                                                                                                                                                                                                                                            | <b>EZ</b>                                                                     |  |                 |                |
| <b>Onarpen/entregaren data:</b>                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
| <b>SINADURA ETA ONARPENA:</b>                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                               |  |                 |                |
| <b>Eskatzailearen sinadura:</b>                                                                                                                                                                                                                                       | <b>Data:</b>                                                                  |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
| <b>GKO</b>                                                                                                                                                                                                                                                            | <b>Data:</b>                                                                  |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |
| <b>Sinadurak:</b>                                                                                                                                                                                                                                                     | <b>Onarpen/ezespenerako arrazoia:</b>                                         |  |                 |                |
|                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                               |  |                 |                |

Aurreko inprimakia opariak, sariak edo ekitaldi, bazkari-afari edo bidaïetarako gonbidapenak onartu edota emateko eskaerak egiteko erabili beharko da, guztiak bide hau erabiliz egin daitezzen eta haren bidez onartu edo ezetsi daitezzen (Protokolo honetan 2. eranskin gisa jasotzen den inprimakiaren bidez egin beharko diren partida edota horiekin lotutako ekitaldiëtarako gonbidapenak salbuetsita

**11.2. ERANSKINA. FUTBOL-PARTIDETARAKO EDO BIDAIA HORIEKIN LOTUTAKO EKITALDIETARAKO GONBIDAPENAK EMATEKO INPRIMAKIA**

|                                                                                                      |                                                          |     |    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|-----|----|
| Eskatzailearen izena:                                                                                | Saila:                                                   |     |    |
|                                                                                                      |                                                          |     |    |
| Data:                                                                                                | Harremanetako datuak:                                    |     |    |
|                                                                                                      | Helbidea:<br>Telefono-zenbakia:<br>Helbide elektronikoa: |     |    |
| FUTBOL-PARTIDETARAKO EDOTA HORIEKIN LOTUTAKO EKITALDIETARAKO GONBIDAPENAK EMATEA                     |                                                          |     |    |
| Partidaren deskribapena (jardunaldia/kanporaketa/klub arerioa/data):                                 |                                                          |     |    |
|                                                                                                      |                                                          |     |    |
| Entrega nori egiten zaio, zer pertsonari                                                             | Funtzionario publikoa da?                                |     |    |
| <ul style="list-style-type: none"><li>Izena:</li><li>Postua:</li><li>Enpresa:</li><li>NAN:</li></ul> | <table><tr><td>BAI</td><td>EZ</td></tr></table>          | BAI | EZ |
| BAI                                                                                                  | EZ                                                       |     |    |
| Entrega egiteko justifikazioa (kontratua babeslearekin/entregaren justifikazioa):                    |                                                          |     |    |
|                                                                                                      |                                                          |     |    |
| SINADURA ETA ONARPENA:                                                                               |                                                          |     |    |
| Eskatzailearen sinadura:                                                                             | Data:                                                    |     |    |
|                                                                                                      |                                                          |     |    |
| GKO (100 euroko zenbatekoa gaingitzen denean, edo gaingitzea aurreikusten denean, betetzeko)         | Data:                                                    |     |    |
|                                                                                                      |                                                          |     |    |
| Sinadurak:                                                                                           | Onarpen/ezespenerako arrazoia:                           |     |    |
|                                                                                                      |                                                          |     |    |